

304. Zenb.
2018-4
Uria - Abendua

karmel



NON ZER**Kultura**

- Esaera zahar baten iturria, *Jabier Kaltzakorta* 3
Etxeberri Sarakoa, iraganetik bulka-bultzak, *Patxi Salaberri*.... 13
Aforismoak, *Ana Urkiza Ibaibarriaga*..... 26

Gizartea

- Ohorezko euskaltzain berriei ohore,
Luis Baraiazarra Txertudi..... 28
Arantzazuko euskaltziandiaren kongresua, *Garbiñe Ubeda*
/ Euskara Batuaren adierazpena 57

Eliza

- On Jose Maria Arizmendiarieta, *A. Olea*..... 67
Bibliaren itzulpenetik liturgiarako itzulpena,
Lorentzo Zugazaga 71

Iritziak

- 3000 Hiztegi Praktikoa. Euskara-gaztelania /Castellano-euskara,
Patxi Uribarren 98
Kristau demokratek kanbio kulturala eskatu beharko lukete,
Roman Garmendia..... 104

Literatura***Kontu-Kontari***

- Pilar, *Joxemari Urteaga* 107
Belako Zaldüna pastorala, *Joseba Aurkenerena*..... 115

Olerkiak

- Ainara Maia Urroz 138
Josu Baez..... 140

KARMEL

Hiruhilabeteroko aldizkaria

Zuzendaria: Julen Urkiza (Markina)

Idazle kontseilua: Luis Baraiazarra, Ana Urkiza,
Patxi Uribarren, Andoni Olea, Luis Arostegi

Helbidea: Karmeldarrak – Markina-Xemein
48270 Markina – Bizkaia (Tel. 94-616 6019)
karmelaldiz@telefonica.net

Harpidetza: Urteko harpidetza: 16 €
(Amerika: 35 dolar)

Aldizkariaren azala: Juan Mari Arrizabalaga

Aldizkari honetan agertzen diren mota guztietako lanak Creative Commonsen baimenarekin babestuak daude.



Eratxikipena - Ez komertziala - Deribatu gabe.

Erabiltzaileak Karmel aldizkariko elementu guztiak bistaratu, inprimatu, kopiatu eta gorde ditzake, betiere bere erabilera pertsonal eta pribaturako badira soilik; betiere obraren *egiletza, jabetza modu egokian aitortuz gero*. Karmel aldizkariko edukiak baimenik gabe merkataritza-helburuetarako erabiltzea edota haiek birsaltzea edo banatzea debekatuta dago. *Lan bat nahastu, eraldatu, edo bertatik beste egintza bat sortzea ere debekatuta dago* betiere **Karmelen** alde aurretiko baimen idatzia izan ezean, eta hala badagokio, dagokion eskubideen jabearena.

Diruz lagundutako aldizkaria:

Jabe: Euskal Herriko Karmeldarrak
Karmengo kalea, 5. Markina.

ISSN: 1132-2357

Legezko gordailua: BI. 459/68

Inprimaketa: Itxaropena S.A. Zarautz



ETXEBERRI SARAKOA, IRAGANETIK BULKA-BULTZAKA

*Ustez, ez dut deusik neure baitarik ekarri,
ez eta ere autoretan kausitzen
ez den gauzarik izkiriatu*

J. Etxeberri

Urte amaiera honetako mendeurren eta ekitaldiek marko ezin egokiagoa eskaintzen dute gure autore klasikoek hizkuntzaz eta haren erabileraz idatzitakoaren inguruan hausnartzeko, haiek ondareztat utzitakoak egun, kalean, pil-pilean aurki ditzakegun gaiak baitira, berdin Europako Hizkuntzen Egunaren kariatara, zein besterenetara, hala Eusko Ikaskuntzaren eta Euskaltzaindiaren mendeurrenean nola Euskara Batuaren mende erdia, Euskaraldia edota Euskararen Eguna ospatzean. Parada ezin egokiagoa, bada, garai bateko erakusleioa zabalik uzten duten autore esanguratsuenek idatzitako pasarte mamitsuenak hautatzeko, haiekin zuzenean solastatzeko eta, anakronia-inpresioei muzin eginez, haiek igorritako mezuez jabetzeko eta, batik bat, egungo egunera ekarriz, zintzoki birpentsatzeko.

1.- Izan ere, gure literatura klasikoan nabarmendu diren idazleen ideologian eta hizkuntzaren inguruko planteamenduetan –planteamendu politikoetan, azken buruan– aztertu eta sakontzea ez da sarritan burutzen den zeregina (ikus Salaberri [prentsari]). Agidanez, dituzten eta ez dituzten literatur

balore hutsek hartzen duten ohiko irakurleen arreta, eta bitxi samarra egiten da inor plano hartatik aurrera abiatzea.

Planteamenduek, ordea, eragin erabakigarria dute haien egiteko moduan eta baita literatura ulertzeko duten eran ere. Nola interpretatu mundua eta nola ulertu transmisio-tresna (hizkuntza, gure kasuan), halaxe jokatu ohi du gizakiak gero eguneroko jardunean, eta areago oraindik letra idatzien esparruan. Eta, ahalmenak ahalmen, halaxe dantzarazten du azkenean inguruko unibertsoa.

Ildo horretan, Etxeberrri Sarakoaren eta Manuel [Garagorri] Larramendiren kasuak ditugu paradigmatico deitu horietako bi. Interesgarrienak, ziurrenik.

Biak XVIII. mendearen lehen erdialdean agertuak, lehena bigarrena baino hogeita bi urte zaharragoa, aldi batez behintzat –saratarraren azken urteetan– ezagun eta kide izan ziren Azkoitiko hainbat gunetan. Kide eta hein batean lankide ere bai, hiztegirako prestatu materiala utzi baitzion Etxeberririk Larramendiri honek berea ontzeari ekin zionean.

Euskal gizarteari buruzko eskarmentu berdintsukoak, bada, biak. Alabaina, hizkuntzaren eta hizkuntz erabileraren inguruko ikuspuntuak eta diagnostikoak oso desberdinak izan ez bazituzten ere¹, erremedioak era desberdinez planteatu zituzten, tamalez euskararen patu gaiztoa beste behin ere gailendu zelarik. Alegia, Iparraldetik etorritako medikuak euskara hutsezkoa izan zuen komunikaziorako baliabidea; josulagunak, berriz, gaztelania erabili zuen berea burutzeko. Emaizak ere, maiz aipatu izan den bezala, zeharo ezberdinak izan ziren: Sarakoak ez zuen berea kalera ateratzeko abagunerik izan eta haren lan mardulenak eskuizkribu galdu gertatu ziren berrehun urtez, inorengana iristeko aukerarik gabe. Aitzitik,

¹ Ikertzeke dago oraindik zenbateraino izan ziren esperientzia desberdinetatik ondorioztatutako emaitza berdintsuak edota noraino elkarren arteko eraginen antzeko fruitu.

Larramendiren lanek argia ikusi eta eragin itzela izan zuten euskal letretan, idazle ziren elizgizonen artean bereziki.

Guztiarekin ere, euskararen garapena eta normalizazioa izan zuten bi-biek xede eta aldarrri. Euskaldunek, ordea, arrazoi bategatik edo bestegatik, kale egin zioten euskaraz idatzita zegoenari² eta erdaraz kaleratutakoa izan zuten erreferentzia.

Gaurkoan –orrialde-kopurua agintari eta agintzaile!–, Saran jaio eta Hegoaldean bizi izan zen idazle lar irakurri gabeari eskainiko diogu tartea.

2.- 1668an jaioa da **Joanes Etxeberri**. Larramendi baino hogeita bi urte lehenago, esan bezala. Medikuntza-ikasketak burututakoan, lehendabizi jaioterrian aritu zen osagile-lanetan. Ondoren, Beran (1713an), Hondarribian (1722an) eta Azkoitian (1725ean) jardun zuen mediku gisa. Azkoitian hil zen 1749an.

Badirudi, utzitako idazlanei gagozkiela –beranduagoko zuzenketak gorabehera–, Hondarribira baino lehen burutu zuela saiakeren erredakzio nagusia (agian Saran hasi eta Beran bukatu)³. Nolanahi ere den, uste izatekoa da ez zuela gehiegi sumatu geroago Hegoaldean (Azkoiti aldean, bereziki) ezagutuko zuen hizkuntz eta kultur giro berezia. Erraz usnatuko zuen, berriz, nola jokutzen zuten hizkuntz(ar)ekin nobleziak, burgesiak eta elizgizonek oro har, eskuarki faktore horiek guztiak izan baitzituen berak idazlanen muin.

3.- Esan beharrik ez da bereziki ohargarri direna Etxeberriren sentsibilitate eta lekukotasun “soziolinguistikoak”, besteak beste, geroago *corpus-plangintza* deituko zitzaionari eskaini

² Ez Lapurdiko Biltzarrak ez bestek ez zioten argitaratua izateko behar zuen laguntza eskaini eta, *Gomendiozco Carta* kenduta, 1718an argitaratu baitzuen, Etxeberriren gainerako eskuizkribuak edo galdu egin ziren (hiztegiari zegozkionak, esaterako) edo ilunpetan geratu ziren 1907an *RIEV* aldizkarian kaleratu arte.

³ Eskuizkribuaren datazio-zehaztapenatarako, ikus Bilbao 2006, cxc-hk.

zion arretagatik (prestatu zuen hiztegi galduak –Larramendik ere berea burutzeko atalen batean baliatu zuena– “arma” linguistikoak aberasteko eta hizkuntza homologatzeko eta normaltze-bidean jartzeko jomuga bide zuen) eta, honako artikululu honetan interesatzen zaigunari dagokionez, oraintsuko *estatus-plangintza* delakoa ere ez zuelako landu gabe utzi.

Egia da, bai, hizkuntz jabekuntza izan zuela kezka larri, hau da, ikasle euskaldunak, euskaratik abiatuta, orduko *lingua franca* (latina) ikastera iritsi zitezten desioak eragin zizkiola gramatika-lana⁴ eta hura kaleratu ahal izateko diru-laguntzak eskatzeko moldatu eta argitaratu zuen *Lau-urdiri gomen-diozco carta edo guthuna* (Baiona, 1718). Baina egia ere da euskararen estatus sozialak ere kezkatu zuela, *Euskararen hatsapenak* deitu izan den argitaragabeko lanaren atal batean ikusten den bezala. “Escualdun escuararen arbutatçailleac, berac dira arbutagarriac” izenekoaz ari gara. Esan beharrik ez da atal hau izango dugula hurrengo lerrootan Etxeberriren kezkarren hariak azaltzeko erreferentzia nagusia.

3.- Kezka pedagogikoaren ildotik, bada, Etxeberriren idazlanaz mintzatzean ahaztu egin ohi den haren baiezen garrantzizko bat mahaigaineratzen has gintezke, segidan planteatuko zituen beste hainbat proposamenen oinarrian dagoen baiezena, oro har.

Hau da Sarako egileak, Euskararen arbuiatzaile eta mesprezatzaileez diharduela⁵, “bi gende aralde” bereizten dituenan

⁴ Berrehun bat urtez argia ikusi gabe geratu zen *Escual-Herriari eta escualdun guztiei escuarazko hatsapenac latin ikbasteco* hizkuntz metodoa (lehen erredakzioa: 1712), hain zuzen.

⁵ Hemengo hitzek okerrik zor ez dezaten, argi gera bedi hasieratik “Escualdun escuararen arbutatçailleac” direla mami eta gai. Halere, haien jokamoldea gaitzetsi bitartean azaldutako ideia zenbaitez baliatuko gara hemen Etxeberriren sentsibilitate “soziolinguistikoa” baloratzeko eta honako lerrook ehuntzeko.

dioena⁶: “batçuec dira escuararic eztaquitenac, eta bertceac escualdun Escual Herrico ume escuararen jaquiteco obligacino dutenac” (213 [74]).

Lehendabizikoen mespretxuari buruz, bertako ez diren arbuizatzaile arrotzak izanik (Juan de Mariana jesuita historialaria tarteko), “erran diteque merprecio suerte hau barkhaquičun dela” (214 [75]). Baina “Escualdun Escual-herrico ume” direnei dagokienez, hor ez omen dago barkatzerik, horiek “escuararen jaquiteco obligacino dute” eta haien “enorantcia eta arbujoa [...] hobenduriagoak” dira (*idem*).

Ez zaie honako honetan arbuio-kontuei helduko⁷, baina bai, ordea, esaldian erdi lausoturik gera daitekeen “escuararen jaquiteco obligacino dute” baiezenaren hariari.

Agerikoa da Etxeberrik ez duela esaten euskal herritarrei “probetxugarria izango zaiela”, edo “komeniko litzaiekeela”, edo “ondo letorkiekeela” euskaraz jakitea. Bertakoek euskaraz

⁶ Kontsultak errazte aldera, hemen Bilbaoren 2006ko edizioa erabiliko da Etxeberriren aipuak emateko orduan (irakurleak “Sarea” delakoan aurki baitezake lana). Hortaz, jatorrizko *Escuararen hatsapenac* saiakerari dagozkion orrialde-zenbakien ondoan Bilbaoren liburukoak erantsiko dira parentesi artean.

⁷ Etxeberrik berak laburbilduko du atalaren amaiera aldean haietaz duen iritzia: “*Horra, beraz, escualdun aralde hautaz gaineraco bertce gendaqui guztiac cein issuriac eta emanac diren bere sortherrico hitzcuntçarentçat. Choilqui gure bertar hauc dira bakharrac, mamia dastatu gabe, achaletic bere hitzcuntça arbujatcen dutenac. Iduritcen çaje jaquintsunac direla. Ordea, egundaino escoletaco berriric ikhasi gabe, itchurapenezco jaquintasun baten azpian dabilçta guztiac hampatuac eta airatuac, eta handic banitatearen guajac berequin daramatça herrestatuac. Ceren escuara faltaduri eguinez, nahi baituzte bilhatu bere abantaillac; erran nahi dut bere bayac eta faltac escuararen gain eguinez, nahi lituzquetela gorde eta estali bere enorantcia eta hutsac, hartaracotz bere usajara eta nahi dutenera gauça guztiac itçultcen tuztelarican. Eta hala, hequien hitçac eta solasac dira nahasiac eta batere boccantçaric gabecoac. Hitcetic hitcera barbarismoa darie, eta, bide hunetaz, bere buruac gende chehearen artean jaquintsuntçat iraganarazten tuzte*” (230-231 [81]; gureak dira letra etzanak [aurrerantzean: g.l.e.]).

jakiteko obligazioa dutela dio saratarrak argi eta garbi. Eta zalantzarik gera ez dadin, gordinago mintzo da aurrerago “euskaldun” horiezaz: “[...] sortherrico hitzcuntça eztaquienaz cer erran ahal diteque, baicic bestiac baino bestiago dela?” (225 [79]).

Adibide guztietan agertuko den bezala, hiztunek bere mintzairarekiko duten eginkizuna ez da borondatezkoa, “obligacioa” baizik, nork bere hizkuntzari zor dion bete beharreko zeregina. Inperiodun izan zein mirabe huts. Eta euskaldunak ez bide dira salbuespen. Eta obligazio horri ez bazaio behar bezala heltzen, errua eta erantzukizuna, dio Sarako Etxeberrik Axularren ildotik atera gabe⁸, ezin zaizkio hizkuntzari bizkarrreratu, ustezko erabiltzaileei baizik: “Eta hala, *eztute ez cer escuara hobenduri eta faltaduri eguin, baina bai bere buruac*” (222 [78]; g.l.e.).

Behin abiapuntua –axioma– finkatuta, diskurtsoaren logikak berehalakoan zehaztuko du euskara jakiteko obligaziotik harago doala euskal herritarren betebeharra, hau da, “*batbederaren eguinbidea dela sortceac* bahitçat beçala *emanicaco hitzcuntçaren jaquitea, ohoratcea eta aiticinaraztea*” (216 [76]; g.l.e.).

Egungo hitzekin adierazita, euskara omentzea, ospatzea, prestigioa ematea lirateke “ohoratu” hitzari legozkioken adierak, eta gaitzea, eguneratzea eta normaltzea, aldiz, “aitzinarazi” aditzarenak. Hizkuntzaren *corpus* plangintzari zein *estatus* plangintzari lotutako esanahiak, ikus daitekeenez.

4.- Leudekeen zalantzak argitze aldera, ausartuko ginатеke esaten hizkuntzaren *estatusaren* ideia –ez hitza bera, noski–

⁸ Baldin eguin baliz euscaraz hanbat liburu, nola eguin baita latinez, frantsez edo bertce erdaraz eta hitzcuntçaz, hec beçain aberats eta complitu içanen zen euscara ere, eta baldin hala ez pada, *euscaldunec berec dute falta eta ez euscarac* (Axular 1643, 19; g.l.e.).

inolaz ere ez dela arrotz Etxeberriren gogoan, eta hona ere ez dela sargailuarekin behartuta ekarri.

Iruzkintzen ari garen atal honetan barrena bi bider behintzat nabarmentzen ditu mediku saratarrak euskarari legozkiokeen –baina faltan dituen– erabilpen-funtzioak. Termino modernoaren esparru semantikokotzat har litekeen “eremu” hitzaren bitartez, nolana ere: “erran dut: ezta eskuara hitzetan hain erromes, nola *eremuz baita escas, eta labor*” (222 [78]; g.l.e.) eta “eztela eskuara hain erromes eta moldegaitz, nola *eremuz baita escas eta labor*” (282 [105]; g.l.e.).

Bistan denez, egun “hizkuntzaren funtzio nazionalak” deitutakoak lirateke esaldi horietan Etxeberrik hizpidera ekarritakoak, eta ez, Odriozolaren hitzak baliatuz (2017), funtzio etnokultural hutsak. Izan ere, Etxeberrik beterik/osaturik/aserik ikusten ditu euskararen funtzio etnokulturalak edo erregionalak, bere inguruko garaikide gehienak euskaldunak izateaz gainera, naziorik gabeko menderatuen bizimodu arrunta egin baitezakete era “normalean”.

Besterik da, beraz, faltan atzematen eta hizpidean jartzen duena: hizkuntzaren funtzio larriak, Herri batek bere dinamika guztia (kulturala, soziala, ekonomikoa, politikoa) bere hizkuntza propioan bideratzeko ezinbesteko direnak.

Jakina, *corpus* hutsari dagokion esparru mugatuan zentratzen ez den ikuspuntu ireki horrek bulkatuko du jarraian hizkuntza hegemoniko izandakoak harira ekartzera, oroz gain hitzun euskaldunek iparrorratz eta eredu gisara izan eta balia ditzaten:

munduan içan diren *gendaquiric jaquintsunec eta valentenec*, hala *Grecoac*, nola *Erromarrec*, hala batçuec nola bertceç *bere bitzcuntça propiala dembora eta lekhu guztietan* eguin ahalaz *bethi oboratcen, abantaillatcen eta aitcinatcen çuten*, eta bertceçenez nausa eta irri eguiten (216-217 [76]; g.l.e.).

Zinez pentsa daiteke, nola ez, Etxeberrik “eremu” hitza darabilenean, jakintza-arlo edo kultur-esparru soiltzat har litekeela haren bidez adierazi nahi duen kontzeptua. Izatez, historikoki –ondoko erreibindikazioen posibilismoagatik, nonbait– ia eskasia eta gabezia horiek bakarrik antzematera mugatu izan dira estatu propiorik gabeko mintzaira gutxi(ago)tu menderatuak. Alabaina, Etxeberriren nahia eta hitzen esanahia harago doaz, hizkuntza batek izan litzakeen funtzio guztiak seinalatzeraino. Hark jarritako adibideak lekuko.

5.- Nabarmentzekoa da nola azpimarratu nahi duen Etxeberrik erromatarrek bere hizkuntzari –latinari– zioten estimu handia eta nola ahalegintzen ziren –irakur bedi: behartzen zizuten– gainerako Herriek ere ohora zezaten eta “funtzio nazionalak” latinaren bidez buru zitzaten. Kolonizazio deitu edo akulturazio, emaitzak beti inperioko hizkuntzaren alde. Nola nahi ere, ez da hori Etxeberrik erakutsi nahi duena eta bai, aldiz, nor bere hizkuntzari zor dion erabateko leialtasuna eta hura erabiltzeko duen betebeharra:

Hargatic, *grecoei ihardetsi behar ciotenean, errespustac latinez emaiten ciotçaten*, eta oraino etcituzten entçun nahi, non latinez edo interpretez etciren mintçatcen: *etçuten hau choilqui eguiten Erroman, baina bai oraino Grecian eta Asian ere* (217 [76]; g.l.e.).

Erromatarrek aratz bide zuten hizkuntz eginkizunaren balio politikoa eta edonor behartu zezaketen hartara. Euskarari dagokionez, saratarra ere ez da gehiegi aldentzen ideia horretatik. Esanguratsua Etxeberrik Suetonioren hitzei ematen dien tokia:

Dio bada, *Tiberio Cesarec ceaquielarican hitzcuntça grecoa, etcela hartaz valiatcen ez mintçatcen*. Aitcitic, behin, ocasino batean, hitz arrotz baten erraiteco cegoelarican, lehenic bere Parlamentari edo Conseilluari galdeguin cioela hitz arrotz haren erraiteco libertatea, eta, dembora berean, Parlamenteco jaune-

quin batean deliberaturic, eman çuela meçua edo manamen-
dua, hitz arrotça khenduric, haren lekhuā herricoa eçarrico
cela; eta, baldin causitcen ez bacen herricoa, *hainitz hitcez edo
itçulinguraca bacen ere, herrico hitzcuntçan erran behar cela.*
Eta, soldadu bat ere baitcen lekhuçcotçat e[n]tçun beharra, *bal-
dinetariac ez bacen mintçatcen latinez, etcedila içan entçuna*
(218-219 [76]; g.l.e.).

Baina harago ere badarama Etxeberrik bere jarrera irmoa⁹.
Hain zuzen ere, sorterriko hizkuntza behar bezala ez jakin eta
ez erabili dihardutenei Espartako Sebero enperadorearen
adibidea jartzen die muturrean. Laburbilduta: enperadore bi-
lakatzean bisitan joan zitzaizkion arreba eta iloba hain “astru-
gaizqui” omen zerabilten berezko behar zuten latin hizkuntza,
ezen, haietaz lotsaturik eta “bere beguien aiticinetic khentcea-
gatic”, opari banarekin¹⁰ “despeditu” eta “herrirat” igorri baitzi-
tuen biak enperadoreak¹¹.

⁹ Ez gara honetan luzatuko, baina mintzaira propioaren erabilera soilaren
aldeko iritziaz gainera (Tiberio eleanitzak egiten zuena, alegia), ez zaio
Etxeberri mespretxagarri iruditzen elebakartasunaren ideia ere, hartan an-
tzematen bide baitu hizkuntza bat bizirik eta sendo mantentzeko zutarrie-
tako bat. Ildo horretakoa da Mexikoko indioen portaeratik jaso nahi duen
adibidea, hots, beren hizkuntzarekiko maitasuna dela kausa, “asko ikhasico
luquetenec latinez eta gatzelaniaz mintçatcen, *guelditzen dira ikhasi gabe,
bere herrico hitzcuntça ez galtcera uzteagatic*” (230 [81]; gurea da letra etza-
na). Hori guztia ez dago haren baitan inondik ere eleaniztasunaren premia
onartzearekin kontrajarria: “[...] gauça bat hain jaquina eta egun guztiaz bat
bederac frogatcen duena, *Escual Herritic ilkhitcen garen beçain laster
hitzcuntça arrotcen premian jartcen garela*” (*Gomendiozco Carta* 33 [347];
g.l.e.).

¹⁰ Arrebari “hainitz emaitça eta joja handi” eta haren semeari “conseillari-
tasuneco arropa edo carga” (226 [79]).

¹¹ “[...] Latina etcen hitzcuntça arrotça arreba harentçat, ceren latin herri-
coa baitcen; haren herrian haurrac eta emacumeac latin mintço ciren, orai
gu escuara beçala [...]; baina nola herrico umeac obligacino baitçuen herri-
co hitzcuntçaren jaquiteco, eta hura mintço [zen] latinez hain astrugaizqui,
hargatic arrebac ahalcarazten çuen anaja emperadorea, eta, hori cela causa,
berehala igorri çuen bere etchetic” (227-228 [80]).

Noski, etsenpluaren ondorioa da hemen azpimarratu nahi genukeena, “egungo egun”-erako ikasbide baiteritzo Etxeberri enperadoreak egindakoari: “Halatan *egungo egunean ere on liçateque halaco Escualdun abalcagarrien herritic igortcea eta khentcea*” (228 [80]; g.l.e.).

Paralelismo nabarmena hirurogeita hamar urte lehenago Axularrek alfer-nagiekin amaitzeko eman zuen erremedio bipilarekin: “Eta *on liçate orai ere halacoequin hala* [bizia edeki, hil] *eguin baledi*” (1643, 32; g.l.e.).

6.- Desioen erabakigarritasunak gorabehera, eta jatorrizko testuan marra batez estalia-edo dagoen arren, oso da esanguratsua Etxeberri aurreko aipuaren ondoan ezarri –eta ezabatu nahi izan bide– zuen esaldia: “(*badut uste causi litezquen cembait joaiteco onic*, bai halaber gogotic lihoazquenic, baldin causi baledi bertce halaco cargu eta present emaille bat)” (228 [80]; g.l.e.).

Ezagun da “egungo egunean ere” Etxeberriri egoki iruditzen zitziola bertako hizkuntza behar bezala ikasi nahi ez zuena erbestera bidaltzea¹². Gainera, esaldiaren tonuagatik, zinez susma daiteke azken orduan ezarritako oharra izan zitekeela hura, hain zuzen ere, mediku gisa ezagutu zituen Hondarribi, Bera eta Azkoitiko hizkuntz giroen eskarmentuarekin idatzia eta biribildua¹³.

¹² Ziburuko Etxeberriren adiskidea zen Estepan Hirigoik idatzitakoak gogorarazten ditu hein batean Sarako medikuak dioenak. Honela zioen Hirigoitik adiskide idazleari ondutako laudorioan: “Erdaldunac ahal doazque,/ Cein bere herrira,/ Gogat eguinic, galduco/ Eztutela Escara” (in Etxeberri: *Noelac*, 1630: 1645, 9-10).

¹³ Izan ere, Bilbaoren ustez, “1722az gerostik ere lan horretan [eskuizkribua hobetzen, alegia] ziharduen [...]. Lapurdiko Biltzarrari 1727an aurkeztu zionez ale bat, pentsatu behar dugu orduan oraindik jarraitu bide zuela lanean” (2006, cxcii).

Areago: nonbait bereganatua zuen jarrera hartaz inolako zalantzarik gera ez zedin, gisa berean jokatu omen zuen Klaudio enperadorearen adibidea luzatu zuen jarraian:

Claudioc jujetasuneco cargutic athera eta khendu çuela Greciaco printce bat, ceren etceaquien herrico hitzcuntça latina; eta oraino etcela hortaz contentatu, haren icena marraturic eta boraturic, Erromarren herroncatic khen ceçaquen artean (228 [80]; g.l.e.).

Etsenpluari zor zitzation gomendio aratza iradoki zion hurrengo lerroetan balizko irakurleari:

Baldin egun ethor baledi Escual Herrira bertce Claudio bat, cembat cargutaric khentceco eta escualdunen herroncatic atheratceco causi otbe letçaque? (228-229 [80]; g.l.e.).

Etxeberri, agerikoa da, neurri irmoen aldeko agertu zen. Baina irakurle euskaldunei –edo latina baino ez zekitenei¹⁴– zuzendu nahi izan zien saiakera hark jatorrizko bekatuaren orbana zeraman gorputzean eta, argitaratu izan balitz ere, nekez joan zitezkeen urrutiegi haren efektuak, gutxi baino gutxiago baitziren egiazko irakurle euskaldunak –alfabetatuak, alegia– eta ez gehiegi, dirudienez, latina zekitenak (elizgizonez eta jende ikasitakoaz gain, esan nahi baita).

7.- Obraren eragingarritasunari zegokionez, bada, nekez zabal zezakeen saiakera hura lapurteraren esparruetatik alde batera zein bestera¹⁵. Hau da, euskarari zor zitzaizkion kultur eta nazio-funtzioak ikusmiran izan arren, guztiek uler zezaketen hizkera baten (bateratuaren) gutxienezko hedapenaren

¹⁴ Gogora bedi euskarazko testuaren parean latinezko bertsioa ere apailatu zuela Etxeberrik saiakerotan.

¹⁵ “Eta, oraino bertce alde, geure herritic ilkhi gabe, *Escual Herrian berean barrena, geure artean dugu pena eta neque ondicozco hau, ceren geure hitzcuntça propiala baitarabilagu hain nahasia eta trucatua, non escuald[u]noc gueroc pena eta neque baitugu elkharren aditceco*” (*Gomendiozco Carta 33-34 [347]; g.l.e.*).

(estandarizazioaren) faltak berak leherrarazten zuen egitasmoa.

Ongi ohartua zen Etxeberri “escuara *bere baitan*” baino ez “dela bat” (157 [52]; g.l.e.) eta, itzalgaizka bezala edo, bateratzearen premia ere iradoki zuen¹⁶, euskara euskaldun guztien arteko ardurazko mintzaira izango bazen bederen (edo, nahia-go bada, “funtzio nazionalak” erdietsiko bazituen).

Horrexegatik aldarrikatu zuen Axular idazleen aitzindari eta buruzagitzat hartzeko premia¹⁷ eta, jarraian, haren hizkera –Sara aldekoa, alegia– literatur hizkuntzatzat¹⁸, zeren eta, inon izatekotan, inguru haietan aurkitzen omen baitziren euskal kulturaren eta hizkuntzaren erreferentzia nagusiak: “arroçoinequin erran baiteçaquet: *Escual Herrico Athenas, Sara Lau-urdin*” (201 [69]; g.l.e.).

Damurik, euskara hutsez idazten ziren (diren?) beste askoren amaiera izan zuen saiakera hark ere.

Eta hirurehun urte beranduago, kiribildua eta bukle-egoeran jarria du euskaldunak jasan behar duen hizkuntz errealitatea, *estandarizatu* gabe –hitz lauz esanda, bateratua

¹⁶ “[...] bat bedi nafarroa-beherearra edo çu[b]jeroarra bizcaitarrarequin edo alabesarequin, eta ochagabiarra edo erroncalesa baztandarrarequin eta lau-urtarrarequin, edo ceinnahi Escual Herrico alde batecoa bertce alderdi-coarequin, eta *ikhusico duçu elkhar ecin adi deçaquetela; aiticic, elkharri idurituco çaizquio, escualdunac direlaric, eztirela hitzcuntça berecoac*” (*Gomendiozco Carta* 34 [347]; g.l.e.).

¹⁷ Ikus “P. Axular, Saraco erretora escuarazco autoretaric hautuena eta famatuena” (159-195 [52-66]).

¹⁸ Sibilinoki egiten du Etxeberrik delako hizkuntz proposamena: “*bere escuara garbiaren edertasuna dela causa, ceina hain handirozqui baita laudatua, ez choilqui Laburdin, baina bai oraino Espainiaco eta Franciaco bertce escual herrietan ere*. Eta, orai garbiqui eguia derradan, *nic behintçat, içatu naicen herri guztietan, bethi entçun içatu dut* (bat bederac entçun ahal içatu duquen beçala), guztiec aho batez aithor hau eta laudamen bera emaiten diotela Saraco escuarari” (198 [67]; g.l.e.). Gehiagorako, ikus “Saraco escuara Escual Herri guztian estimu eta ospe handitacoa da” atala, 196-201 [66-69] orrialdeak bereziki.

eta gehiengoak onetsia eta erabilia izan gabe– ezin erdiets ditzakeen funtzio nazionalak lortu ezinik dabilen hizkuntza gaixoaren batasuna bera baitu eztabaidagai... oraindik!

Horretan ez dirudi anakronismoek inoren sentsibilitatea, jarrerak eta ikuspuntuak zaurtzen dituztenik.

Baina orain bai, “orai iduritcen çait asqui garbiqui mintçatu naicela” (237 [84]).

*Aramaion, 2018ko urriaren 30ean
Patxi Salaberri Muñoa*

Bibliografia

- Axular (Agirre, P.), 1643, *Gero*, Bordele, G. Milanges (<http://klasikoak.armiarma.com/faksimileak/17/AxularGero.pdf>).
- Bilbao, G., 2006, *Joanes Etxeberri Sarakoaren saiakeran lanak eta latina ikasteko gramatika: edizioa eta azterketa*, EHU (http://www.euskara.euskadi.eus/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Gidor_Bilbao_TESIA.pdf).
- Etxeberri “Sarako”, J., 1907, *Escuararen hatsapenac*, in *RIEV* 28, 85-201 (orain in G. Bilbao, 2006, 1-114).
- Etxeberri “Ziburukoa”, J., 1630: 1645, *Noelac eta berce canta espiritual berriac*, Baiona: Maffre (<http://klasikoak.armiarma.com/faksimileak/17/EtxebZibuNoelak.pdf>).
- Odriozola, J. M., 2017, *Nora goaz euskalduntasun honekin?*, Donostia: Elkar.
- Salaberri, P., (prentsan), “Iragana etorkizunerako abiapuntu (Hiru oharño euskal klasikoen baliagarritasun soziolinguistikoz”.